

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Gobernuak aurten 1,7 milioi euroekin finantzatuko du udaletako musika-eskolen jarduera

*Laguntzak maiatzaren 31 arte eskatu daitezke*

Viernes, 24 de abril de 2015

Nafarroako Gobernuak 1.720.283 euroko laguntzen deialdi bat argitaratu du, Foru Komunitateko udal-titulartasuneko 51 musika-eskolak aurten mantentzeko eta funtzionamenduan jarraitzeko.

Laguntzak maiatzaren 13ra arte eskatu daitezke, dagozkion formularioa eta dokumentazioa Foru Gobernuko erregistro orokorrean aurkeztuz, [30/1992 Legearen](#), Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzkoaren, 38.4 artikuluan ezarritako beste edozein lekutan edo Nafarroako [erregistro elektronikoa](#) aurkeztuz.

Deialdia arautzen duen [124/2015 Ebazpenak](#) jasotzen duenez, beharrezkoa da 2014ko abenduaren 31n Hezkuntza Departamentuko musika eta dantzako eskolako berariazko erregistroan izena emanda izatea diru-laguntza hori jasotzeko, bai eta ikasturte honetan (ikasturte osoan) aktibo izatea ere.

Oinarrien helburua, alde batetik, honako hau bermatzea da: udal-eskoletako ikasleei kontserbatorioetan ematen diren araututako musika-irakaskuntzetarako bideaa errazte; bestetik, kontserbatorioetan presentzia urriko musika-tresnen espezialitateak udal-eskoletan ezartzen nahiz mantentzen laguntzea.

Nolanahi ere, zentro bakoitzerako muga duten zenbateko batzuk ezartzen dira, eta ezingo dute gainditu aurreko urtean jasotako diru-kopurua, ez eta 2015eko ekitaldirako ezarritako gastuaren hasierako aurrekontuaren % 33 ere.